

Sokatira Europako Txapelketa Holandan

Ezinezkoa gertatu zen

Nuarbe ez zen sailkatu 640etan, eta domina batekin itzuliko da

Igor Flores:
«Ehun metro
gutxi edo asko
izan daitezke»

Ekimov: «Banekien
Igor harrapatzeko
aukera izango nuela»

Erredakzioa / Donostia

IGOR FLORESEK baze-
kien garaipenetik oso hur-
bil izan zela, baina nafa-
rrak kiroltasunez hartu
zuen gertaturikoa: «Ehun
metro gutxi izan daiteke
edo asko. Kasu honetan
niretzat gehiegi izan da eta
harrapatu egin naute». Dena den, pozik agertu
zen, bere helburuetako
bat lehian egotea baitzen:
«Ni helburu batekin etorri
nintzen Vueltera, etapa
bat irabazteko lehian iza-
tea, alegia, eta hori behin-
tzat lortu dut. Hau orain-
dik ez da amaitu eta beste
aukeraren bat ikusten
badut berriro saiatuko
naiz». Esprinterak itxaron
beharrean erasoia jotzea
erabaki zuen, Ruben
Gorospek hala aginduta:
«Nik esprinta jokatzeko
pentsatzen nuen, baina
Rubenek esan dit urrutitik
erasotzeko taldetxia ezus-
tean harrapatzeko, eta ia
lortu dugu».

Viatxeslav Ekimov • «Nire
etxetik hain hurbil irabaz-
teak poz handiagoa ema-
ten dit. Gaur goizean seni-
deak eta lagunak nirekin
izan dira eta gaur irabazi-
ko nuela esan didate. Oso
polita da niretzat. Euskal-
telekoa aurrera joan da
baina 500 metro falta zire-
la ikusi dut harrapa neza-
keela eta eraso jo dut. Tal-
dearentzat garaipen hau
oso garrantzitsua da».

Igor Glez Galdeano •
«Egoera hau guztiz berria
da niretzat, baina oso gus-
tora nago. Nire helburua
da postuari eustea, baina
badakit ez dela erraza
izango. Atzetik Heras eta
Jimenez ditut eta badakit
osteguneko eta ostiraleko
etapak oso aproposak
direla beraientzat, baina
ikusiko dugu zer gertatzen
den. Dena den, ni oso
pozik nago orain arte egin-
dakoarekin eta horrek
lasaitasun handia ematen
dit».

Koldo Alduntzin / Slagharen
berriemaile berezia

AURTENGO Europako Txa-
pelketa ez da oso oparoa izan
euskaldunentzat dominetan,
zilarrezko bat lortuta itzuli
baitira Salgharendik (Holan-
da). Igande arratsaldean
amaitu zen txapelketa pisu
preziatuenarekin: 640 kiloe-
takoarekin. Nuarbe aritu zen
Espainia ordezkatzeko, eta ez
zuen finalerdietara sartzea
lortu. Lau txanda irabazi
zituen, eta 12 puntu lortu
ondoren, zazpigarren sailka-
tu zen.

650 kilokoarekin alderatu-
ta, Jon Gurrutxaga eta Ibon
eta Andoni Etxezarreta zelai-
ratu ziren Mikel Baraibar,
Aitor Olaizola eta Xebax
Gurrutxagaren ordezkari. Hiru
haiekin batera, Pedro eta
Patxi Gurrutxaga, Mielanjel
Urtuzaga, Jexux Etxezarreta
eta Xipri Aranbarri aritu
ziren Iñaki Altunak Gidatuta
eta Xebax Gurrutxaga lagun-
tzaile zutelak.

Hamar nazio aritu ziren
lehian. Aurreneko txanda
Holandaren kontra jokatu
zuen, eta bi tiraldiak galdu
zituen. Ipar Irlandari, berriz,
bi tiraldiak irabazi zizkion
minutu batean. Israel 20
segunduko bi tiralditan men-
deratu zuen, eta baita Alema-
nia ere segidan, pittin bat
gehixeago lan eginda. Iral-
dandako Errepublikarekin
oso lehia estua izan zuen,
baina epailea esku zabala
izan zen irlandarrekin eta bi
tiraldiak gadu zituzten eus-
kaldunek.

Belgika menderatuta eta
ingelesen kontra galduta,
Suediaren kontra zuen itxa-
ropen bakarra sailkatu ahal
izateko, baina Suediak oso
talde gaztea eta indartsua
zelairatu zuen, eta minutu
pasatxoko bi tiraldiak irabazi
egin zizkion. Suitzaren kon-
tra zuten guztia emanda
amaitu zuten saioa. Finaler-
dietara sailkatzeko ligaxka
jokatu behar izan zuten
Holandak, Suediak, Irlanda-
ko Errepublikak eta Ingalate-
rrak, 17 punturekin amaitu
baituzuten.

Ingalaterra geratu zen kan-
poan, eta finalerdietara Sui-
tzak erraz menderatu zuen
Suedia, horiek askoz neka-



KOLDO ALDUNTZIN

Nuarbetarrak Suitzaren kontrako azken txandan, Xipri Aranbarri aurretik dela; han amaitu zuten txapelketa.

Dominen zerrenda

Klubeka	Urrea	Zilarra	Brontzea
Holanda	2	4	0
Suitza	2	0	3
Hego Irlanda	1	1	0
Ingalaterra	1	0	2
Suedia	1	1	1
Belgika	0	1	1
Nazioka	Urrea	Zilarra	Brontzea
Suitza	3	2	0
Holanda	3	1	1
Ingalaterra	1	0	1
Suedia	0	2	1
Espainia	0	1	0
Ipar Irlanda	0	1	0
Belgika	0	0	2
Hego Irlanda	0	0	2

tuago baitzeuden. Ipar Irlan-
dak estu jarri zizkion gauzak
Holandari, baina azkenean
bi tiraldiak irabazi zizkion.
Finalean, berriz, Suitzak izu-
garrizko nagusitasuna era-
kutsi zuen, eta baita urrezko
domina kolporatu ere.

«Gure mailako postua lortu dugu»

Igandeko saioa amaitu
bezain laister Jexux Etxeza-
rreta tiralariak, hau esan
zigun: «Gu garen arabera
postua lortu dugu, ez gehia-
go ez gutxiago». Holanda eta

Ipar Irlandakoen kontrako
txandak aipatu zizkigun:
«Holanda baino 14 kilo
gutxiago ginen, eta gainera,
lurra markatu gabe zegoen;
garai txarrean harrapatu
gaitu. Irlandesen kontra,
berriz, epaileak kendu egin
digu tiraldia, eta bi txanda
horiek izan dira ez sailkatze-
ko gakoak».

Emakumezkoen 560 kiloe-
tan berriro Holanda eta Sue-
dia beste hiru nazioen gaine-
tik ibili ziren. Beren artean
jokatu zuten finala, eta
holandarrek minutu eta
erdiko bi tiraldiak irabazi
zituen. Gizonezkoen pisurik
handienean, 720koan, be-
rriz, Ingalaterrak lortu zuen
Suitza talde indartsua men-
deratzea.